

## **KOSTU EGITURA**

### **- Zein dira zuen proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?**

Kostu finkoei dagokionez, produzitzeko behar dugun espazioaren alokairua zein enpresaren zuzendaritza eraikinaren alokairua eta langileen soldata izango ditugu. Kostu aldakorretan, lehengaiak; metala, plastikoa eta gel hidroalkoholikoa batez ere.

Ingurumen kostuei dagokionez, enpresa txikia izatean, kutsadura ez da gehiegizkoa izango. Nahiz eta produkzioan nolabait natura kaltetu, posible den neurrian ekologikoak izaten saiatzen gara, berriz erabilitako plastikoak erabiliz. Beraz, produkzioa aurrera eramateak suposatzen duen kutsadura eragiten dugu, posiblea denaren barruan gutxien natura kaltetuz. Ingurumen kostu ekonomikoei dagokionez, ez dugu kutsadura zergarik ordaindu beharko, kutsaduraren muga legalen barruan gaudelako.

Kostu sozialik ez du izango produktuak. Langileak duintasunez tratatuak izango dira, eta gainera, osasun publikorako intereseko produktua da gurea.

Gure produktuaren prezioa altua da produkzio kostua, kalitatea eta produktuaren kontsumitzaileak (nori zuzenduta) direla eta.

Enpresa aurrera egin ahala, lehengaien eskuragarritasuna igoko da guretzat, epe luzeko kontratuen bitartez. Gainera, gestioa hobetuko da espezializazioarekin, eta bankuen finantziakoa interes gutxiagokoa izango da. Ondorioz, eskala-ekonomia emango da, geroz eta gehiago ekoitzi, gutxiago kostatuko du unitate bakoitzaren produkzioa.

Hedapen ekonomikoa emateko, kontsumitzaileengan konfidantza sustatu behar dugu, gure produktua kalitatezkoa dela erakustea. Horrez gain, kontsumitzaileak produktua erabiltzean izan dezaketen arazoetan beti laguntzea, eta saltzen duguna eta produktua bera gauza berdina direla erakustea. Horretaz aparte, gure kontsumitzaile kopurua handitzea ikastetxe ezberdinetan interesa piztuz, Marketing efektiboaren bitartez, baita beste ikastetxek gomendioaren bitartez, merkatuan kontsumitzaile kopuru altuagoa izateko. (ikusi 1.eranskina)

Eranskinak:

1. Eranskina:

XXXXXXX	Urtarrila			Otsaila			Martxoa			Apirila		
	Kopurua	Gastua	Guztira	Kopurua	Gastua	Guztira	Kopurua	Gastua	Guztira	Kopurua	Gastua	Guztira
Kostu finkoak	15	2.000,00 €	30.000,00 €	15	2.000,00 €	30.000,00 €	15	2.000,00 €	30.000,00 €	15	2.000,00 €	30.000,00 €
Lehengaiak	Kopurua	Gastua	Guztira	Kopurua	Gastua	Guztira	Kopurua	Gastua	Guztira	Kopurua	Gastua	Guztira
Metala	10	90,00 €	900,00 €	10	90,00 €	900,00 €	10	90,00 €	900,00 €	10	90,00 €	900,00 €
Plastikoa	10	40,99 €	409,90 €	10	40,99 €	409,90 €	10	40,99 €	409,90 €	10	40,99 €	409,90 €
Kostu adakorrak	7 €	8,00 €	56,00 €	7	8,00 €	56,00 €	7	8,00 €	56,00 €	7	8,00 €	56,00 €
	Urtarrilako gastuak			Otsailako gastuak			Martxoako gastuak			Apirilako gastuak		
			32.065,90 €			32.065,90 €			32.065,90 €			32.065,90 €
XXXXXXXXX	Urtarrila			Otsaila			Martxoa			Apirila		
XXXXXXXXX	Dirua	Guztira	Kopurua	Dirua	Guztira	Kopurua	Dirua	Guztira	Kopurua	Dirua	Guztira	Kopurua
Produktua	20	3.000,00 €	60.000,00 €	20	3.000,00 €	60.000,00 €	20	3.000,00 €	60.000,00 €	20	3.000,00 €	60.000,00 €

Guztizko kostua	128.263,60 €
Guztizko diru sarrerak	240.000,00 €
Enpresaren etekina	111.736,40 €

